

2024ko

# ESKOLA OPORRETAKO PEDAGOGIA-PROIEKTUA

HARRERA KOLEKTIBOAREN DESKIPZIO LIBURUXKA



## Aurkezpena

ELGARREKIN harrera zentroa Ortzaizen kokatua da. Euskal Hirigune Elkargoak du honen kudeatzeko eskumena.

Ipar Euskal Herriko 10 herriarteko elkargoen bateratzeetik sortutako Euskal Hirigune Elkargoaren barne dago ORTZAIZEko herria.

900 biztanle baino doi bat gutiago dituen herri honek zenbait zerbitzu dauzka: eskolak, ofiziale eremu bat supermerkatu batekin, okindegi bat, eskulangintza, erabilera anitzeko gela bat, ezker paret bat, pilota plaza bat, jostailutegi bat...  
Harrera zentroek (eskolaldi ingurukoak eta eskola kanpokoak) azpiegitura horiek balia ditzakete.

Pedagogia-proiektu hori Euskal Elkargoaren hezkuntza-proiektuaren ildoan apailatua da, ondoko helburuekin:

► Komunikazio, trukada eta irekitze gune bat proposatzea, non herri desberdinetako gurasoak eta haurrak bil daitezkeen, eskola desberdinetan ibiltzen direlarik edo bertan bizi ez direlarik, denei irekitako egitura baten galtzarrean.

### Familiei komunikazio, trukada eta irekitze gune bat proposatzea, Taldekako bizitza sustatzea.

► Gizarte lotura eta elkartasuna berrosatzea, lagun arteko giroa, bestearen ezagutza, elkarrizketa eta partekatutako atseginarekin bitartez.

#### Herritartasun nozioa sustatzea

► Haurren autonomiaren garapena laguntzea, adin bakoitzari dagozkion beharren eta ezaugarrien errespetuan: inizatibarako, sormenerako gaitasuna, erantzukizunei buru egitea, izpiritu kritikoaren eta entzutearen garapena.\*

#### Psikomotrizitatea garatzea ttipien aldean, idazketara eta irakurketara bultzatzea

► Haurrak loratzen laguntzea

-jokoaren eta beste hainbeste jardueren bitartez: kultura, kirola, artea, zientzia, sorkuntza. -natura-, gizarte-, kultura-ingurumena eta ingurumen geografikoa ezagutaraziz.

### **Irudimena garatzea Haurrari oporraldi goxoa eskaintzea**

- Bere irudimena noraezean ibiltzen, sortzen, amesten uztea.
- Haurren asmamenaren garapena bultzatzea haurrek gustukoak dituzten gaien bitartez (**larrazkeneko bakantzetarako: larrazkenaren gaia –ibilaldiak egitea oihanean, hostoak eta gaztainak biltzea, sortzea, irudikatzea eta abar–**).
- Betiko gai honekin, haurrek duten asmamena eta abentura zaletasuna zabaltzea nahi dugu, zientzia-, kirol-jarduera jostagarrien eta eskularen bitartez.

► Haur bakoitzaren kultura-jakintzak kontuan hartzen laguntzea (ingurumen euskaraduna ala ez), jarduerak bi hizkuntzetan praktikatzeko bidea eskainiz.

### **Inguruko eremuak eta ondarea ezagutzea**

**Familien hizkuntza mailako helburuak kontua hartzen laguntzea.** (Euskaraduna ala ez).

## **Baliabideak**

AGAZa Euskal Elkargoko aurrekontuaren menean da inbestimenduei, ateraldiei eta material erosketei dagokienez (kontsumitzekoak eta pedagogikoak).

2021etik goiti, Elgarrekin euskarazko aisialdi zentroen labelizazio dispositiboan sartu da, Euskaraz Josta, Euskal Elkargoak daraman dispositiboa. Horrela, adin tarte bakoitzari euskarazko harrera bat proposatzeko helburuarekin, Elgarrekin egitura baldintzen bildumak zehazten duen ERDIZKA eredu plantan ezartzen ari da. Handik aitzina, animatzaile euskaradun kopuruaren arabera oporraldi bakoitz, zentroa antolatuko da talde bakoitzak jarduera denboraren erdia euskaraz eraman dezan. Edo egun erdi bat euskaraz egun bakoitz, edo euskarazko jarduera bat goizean eta beste bat arratsaldean. Taldekako bizi uneetan, euskarazko trukadak hobetsiko dira haur elebidunekin. Hori dena familien hezkuntza-proiektuaren jarraiketasunari buruz. Harrera eredu hau plantan ezarriko da lehenik ttipi-ttipien aldean, eta zabalduz joanen da, ahal den moduan, handienen taldeetan.

## **Publikoa**

3 eta 14 urte arteko haurrak dira. Haur gehienak Garaziko kantonamendu inguruko herrietatik datoz. Adin tarteari begira eta haien bizi erritmoa, behar fisiologikoen eta interesen aniztasuna errespetatzeko, haurrak horrela banatuak izanen dira (ahal den aldi oro):

- 2 taldetan asteazkenetan: 3/5 urtekoak eta 6 urtez goitikoak

- 3 taldetan oporretan: 3/5 urtekoak, 6/8 urtekoak eta 9 urtez goitikoak

Arrazoi praktikoengatik, adin tarteak ezin direlarik banatu, jarduerak denei komeni izateko gisan egokituak dira.

## **Langile taldea larrazkeneko bakantzetarako:**

### **- Zuzendari bat**

- Koordinatzaile eginkizuna betetzen du: antolatzailearekin, langile taldearekin, kanpoko esku hartzaileekin eta partaideekin harremanetan da. Formatzaile eginkizuna betetzen du ere: animatzaileak laguntzen ditu beren etengabeko bilakaeran, aholku ematen die eta beren animazio-proiektuak sostengatzen ditu. Bermatzen du egituraren funtzionamendu onerako langile bakoitza errespetatua eta ezinbestekoa sentitzen dela.

### **- AIGA diplomadun animatzaileak: 5**

- Animatzaileak jakin behar du zer ardura dituen, haurraren segurtasun fisiko, moral eta afektiborako. Haurren eguneroko bizia antolatu behar du. Aktibitateak aitzinetik prestatu behar ditu.

### **- AIGA ikastunak: 2**

- Ikastuna ohartu behar da animatzaile baten hezkuntza-erantzukizunaz adingabeen aldean eta talde pedagogiko baten baitan.

### **- Diplomarik gabeko animatzaileak: 2**

### **- Ahalmen urritasun duten haurrak laguntzeko animatzailea: 1**

- Plantan ezarri antolakuntzak ahal bezain ontsa bete behar ditu haurraren beharrak, zailtasunak sortu gabe ez haurrari, ez taldeari, ez hezkuntza-taldeari. Haurraren helburua oroz gainetik integrazioa da; ez gara hezitzaileak.

### **- Mantentze langilea: 1**

- Lokalak eta jantegia garbitzea eta mantentzea (arreta berezia finkatzen da langile teknikoetan, aisialdi zentroak ezin baitu ontsa funtzionatu denen atxikimendu eta parte hartzerik gabe).

## **1-Helburu pedagogikoak eta baliabideak**

### **1. Hezkuntza-xedea:** Gizarteratzea, komunikazioa.

#### **Helburuak:**

- ⇒ Haurren arteko kooperazioa, taldean bizitzeko izpiritua, elkarbizitza garatzea
- ⇒ Denen arteko proiektu baten galtzarrean elkar laguntzeko bidea
- ⇒ Trukadak sustatzea, eragile desberdinen arteko harremanak garatzea, ttipi eta handiendako altxor bilaketa handi bat antolatzea

#### **Baliabideak:**

Taldeakako jokoak, altxor bilaketa, animatzaileekin bilkurak.

### **2. Hezkuntza-xedea:** Kultur nahasketa

#### **Helburuak:**

- ⇒ Munduari, herrialde desberdinei eta haien tradizioei irekitzen sustatzea
- ⇒ Tokiko kulturari eta ondareari sentsibilizatzea
- ⇒ Euskararen erabilera sustatzea

**Baliabideak:** animatzaile talde elebiduna, menuak eta egitarauak euskarara itzuliak, hurrek ezagutzen ez dituzten jokoan inguruko kirol hezitzaileak edo esku hartzaileak, eskulanak.

2021etik goiti, Elgarrekin euskarazko aisialdi zentroen labelizazio dispositiboan sartu da, Euskaraz Josta, Euskal Elkargoak daraman dispositiboa. Horrela, adin tarte bakoitzari euskarazko harrera bat proposatzeko helburuarekin, Elgarrekin egitura baldintzen bildumak zehazten duen ERDIZKA eredu-a plantan ezartzen ari da. Handik aitzina, animatzaile euskaradun kopuruaren arabera oporraldi bakoitz, zentroa antolatuko da talde bakoitzak jarduera denboraren erdia euskaraz eraman dezan. Edo egun erdi bat euskaraz egun bakoitz, edo euskarazko jarduera bat goizean eta beste bat arratsaldean. Taldekako bizi uneetan, euskarazko trukadak hobetsiko dira haur elebidunekin. Hori dena familien hezkuntza-proiektuaren jarraikitasunari buruz. Harrera eredu hau plantan ezarriko da lehenik ttipien aldean, eta zabalduz joanen da, ahal den moduan, handien taldeetan.

Neguko bakantzetarako, animatzaile euskaldunen kopuru handia denez, 3 eta 5 urte artekoen taldean, 6 eta 8 urte artekoen taldean eta 9 urtez goitiko taldean euskaraz mintzatzen ahalko gara, euskara ulertzen ez duten haurrendako animatzaile erreferente frantses bat gehituz.

Hizkuntza kulturaren osagaietarik bat da eta, aldi berean, kulturaren eragilea. Hizkuntza bat ezin da berez existitu, gizartearekin lotuta dago, besteei lotzen gaituena da (Barbara Abdhelilah Bauer)

Beraz, haur talde guzientzat egun guzietan egun erdiak antola daitezke euskaraz. Kantina denbora euskaraz mintzatuz iraganen da, langilea euskalduna baita; animatzaile erreferente frantses bat gehituko da euskara ulertzen ez duten haurrendako.



### 3 - Hezkuntza-xedeak: Kirola

#### Helburuak:

- ⇒ 6 eta 10 urteren artean, haurra ekintza eta esplorazio egarri da. Bere motrizitatea sotiltzen da eta gero eta gehiago ikasi nahi du. Hastapenean, bere aktibitateak oso indibidualak badira ere, gero eta interes handiagoa du taldeko aktibitateetan.
- ⇒ Natura ingurunean ezagutzak eta jokamoldeak izatea. Natura ingurunea nor bere buruaren balioa agerian emateko eta besteen aldean nork bere buruaren ebaluatzeko lekua da. Ingurumen-hezkuntza herritartasun- eta erantzukizun-hezkuntzaren parte da.
- ⇒ Kirolen ezagutzea

Baliabideak: Kiroletan aritzea kanpoko esku hartzaileekin, barruko jolasak eta abar.

### 4 - Hezkuntza-xedeak: Naturarako sarbidea erraztea

#### Helburuak:

- ⇒ Fauna eta flora ikertzea
- ⇒ Naturaren errespetuan eta babestean heztea
- ⇒ Negukori buruzko jakintzak izatea

Baliabideak: oihanean ibiliz.....

### 5 - Hezkuntza-xedeak: Irudimena

#### Helburuak:

- ⇒ Irudimenaren garapena sustatzea
- ⇒ Irudimenezko mundu batean ibiltzen eta bere irudimena erabiltzeko gai izanen da haurra
- ⇒ Haurrak laguntzea pokemonen, objektuak fabrikatzea.....

Baliabideak: Pokemoniei buruzko gaia, objektual fabrikatzea

#### Ebaluazio irizpideak:

· Zentroko ibileran, une bakoitza pedagogia-proiektuaren arabera aztertu behar da eta aztertuko da:

- Haurrak mintzatzeko aukerarik izan ote du?
- Haurrak autonomia erakutsi ote du:
  - Materiala erabiltzeko?
  - Geletan ibiltzeko?
  - Jardueretan aritzeko?

- Haurra jardueraren bihotzean izan ote da?
- Haurra pozik izan ote da:
  - Aisialdi zentrora etortzeaz?
  - Jardueretan parte hartzeaz?
- Haurrak heldu bat deitzen ote du behar duelarik?
- Haurrak proposamenik egiten ote du:
  - Jarduerak antolatzeke?
- Haurrak elkartasuna erakusten ote du besteengan (haur eta heldu)?
  - Tresnak plantan ezarriak izanen dira:
    - Banako elkarrizketak
    - Bilan informalak animatzaileekin
    - Bilana egiteko bilkurak astean behin
    - Haurren biltzarrak: Hurrekin solasaldiak

Hona taldeak bere buruari egingen dizkion galdera batzuk kalitatezko harrera bat ahalbidetzeko:

- Animatezaile taldea modu eraginkorrean eta koherentean ibili ote da?
- Zein izan dira menturazko zailtasunak? Konponduak aurkituak izan ote dira?
- Hurrek zailtasunik ukan ote dute une batzuetan edo jarduera batzuen denboran?
- Talde dinamika baikorra izan ote da?
- Haur batzuk taldetik edo jardueratik baztertuak edo kanporatuak izan ote dira? Zein izan dira plantan ezarritako aterabideak?
- Aurreikusitako ordutegia errespetatua izan ote da? Hala ez bada, zergatik??



## Urritasun bat duten haurren integrazioa

Zentroak urritasun bat duten haurrak errezibitzen ditu. Orduan, haur horiek baldintza hobereenetan errezibitzeko gogoetatzea garrantzitsua da. Harrera honen helburuak dira:

- ⇒ Urritasun bat duten hurrei beste hurrekin une goxoak iragateko bidea ematea.
- ⇒ Urritasun bat duten haurren behar fisiologikoei erantzutea, segurtasunik gabe ez uzteko.
- ⇒ Aisialdi zentroko beste hurrek desberdintasuna errespetatzeko gaitasuna garatzea

### Aisialdi zentroan hasi baino lehen:

Zuzendaria haurrarekin eta gurasoekin biltzea funtsezkoa da. Bilkurak haurra, bere jarrera, bere arazoak ezagutzeko, urritasuna aurkezteko bidea emanen du, baita gurasoei dituzten igurikapenak aurkezteko bidea ere. Zuzendariak ere aisialdi zentroaren ibilera aurkeztu beharko du eta gurasoak eta haurra lasaitu, oraindik ezagutzen ez duten mundu batean sartuko direnez. Zuzendariak arduradun taldea informatu eta sentibilizatu behar du.

### Aisialdi zentroan:

Animatzaile erreferenteek haurraren premiazko beharrei erantzun beharko dizkie (aldatu, janaria eman beharrez...), eguneroko une desberdinetan lagundu, jardueren denboran eta taldekako harremanetan. Zentroko haur guziekin mintzatzea garrantzitsua da eta, oroz gainera, bakoitzaren galderei erantzutea. Helburua da urritasun bat duen haurrak une goxoak iragan ditzan beste hurrekin. Desberdintasunaren gaia aipatzeko aukera ere izanen da.

### Aisialdi zentrotik landa:

Gurasoei emandako eguneroko bilana garrantzitsua da. Beste haurrendako bezala egina izan daiteke, ahoz, egunaren bukaeran. Haurraren errezibitzeari puntu baikorrak eta mugak zehaztu beharko dira, gurasoen eta pedagogia taldearen ikuspuntutik. Taldean hitz egitea ere garrantzitsua da animatzaileen begirada ukaiteko egunari buruz (gertatutako arazoak, puntu baikorrak, hobetu daitezkeenak).

Pedagogia taldeak bere buruari galdetu beharko dio: urritasun bat duen haurraren integrazioa lortua izan ote da?

## **III. Antolaketa orokorra**

Haurrak eta gazteak erantzukizun partekatuaren egoeran ezartzea. Eguneroko biziaren antolaketaren bidez, langile taldeak hitzematzen du errezibitu haurren segurtasun fisikoa, morala eta afektiboa errespetatuko duela.

- **Période d'ouverture de l'accueil**

**Aisialdi zentroaren irekitze garaiak**

Asteazkenetan eta oporretan (salbu Eguberriko oporretan), udako oporraldi osoan.

**Ordutegia: 7:30 - 18:30**

Oporretan, haurrak errezibituak izan daitezke (egun osoan, egun erdian edo egun erdian bazkaria barne) 7:30etik goiti, 18:30 arte.

Ahalaz, adin tartek bereiztea komeni da, erritmoak, beharrak eta ahalmenak errespetatzeko (kontzentrazio denbora, psikomotrizitate garapena eta abarrak desberdinak direlakoan).

**EGUN BATEN ADIBIDEA**

| <b>Ordutegia</b> | <b>HELBURUAK</b>   | <b>BALIABIDEAK</b>   |
|------------------|--|--|
| 07:30-09:15      | Harrera (07:30-09:30) =<br>Hurrei bakoitzak bere erritmoa izateko ahala ematea<br>Haurren presentzia kontrolatzea<br>Mintzatzea, haurren berri hartzea eta bestelako berrien ematea, konfiantza giroa sortzea<br>Kontsolamendua ekartzea | Haurrak banazka jitea<br>Jiteak markatzea<br>Burasoei harrera egitea<br>Haurrak entzutea eta haiei erne egotea   |
| 09:30-11:45      | Haurren segurtasun fisiko eta morala bermatzea<br>Haurren loratzea sustatzea<br><br><b>Ez ahantz materiala biltzea eta bilaraztea</b>  | Aktibitateak plantan ezartzea, pedagogia-proiektuarekin loturan  |
| 12:00-13:30      | Bazkaria: Higienea zaintzea<br>Segurtasuna bermatzea<br>Jakiak ezagutaraztea, haurra jatera ez bortxatzea<br>Gehiegizko harrabotsa saihestea<br>Erantzukizunak ematea, autonomia garatzea, ikasketa erraztea                             | Eskuak garbitzea, sukaldara ez sartzea<br>Adin tarteen arabera taldeak egitea (janaria zerbitzatzea, haragia moztea, mahaia altxatzen laguntzea eta abar)<br>Banakako Harrera<br>Proiektua: animatzaile bakoitzak protokoloa ezagutzea |
| 13:30-14:15      | Jokoak proposatzea, jostatzen uztea, lasaiki egotea  | Hurrei denbora librea uztea, jokoak hautatzen uztea  |



|             |   |   |
|-------------|---|---|
| 14:30-17:00 | Haurraren segurtasun fisiko eta morala bermatzea<br>Haurraren loratzea sustatzea<br><br>Haurraren behar fisiologikoak betetzea, partekatzea eta mintzatzea.                     | Aktibitateak plantan ezartzea, pedagogia-proiektuarekin loturan<br><br>Askaria ematea eta hurrekin jatea                      |
| 17:00-18:30 | Partekatzea, jostatzen uztea, mintzatzea, haurrarekin jostatzea<br>Familiei egunean gertatutakoaren eta haurraren berri ematea<br><br>Segurtasuna bermatzea, arduraz jokatzeara | Haurrarekin jostatzea<br><br>Burasoekin mintzatzea<br><br>Haurra norekin joaten den jakitea (bakarrik, familiarekin eta abar) |

## Eremuen antolaketa

Gune desberdinen antolaketak badu eragin hurrek duten erabiltzeko ohituran.

Harrerarako gela desberdinak bai ala bai antolatu behar dira hurrek proposatuak zaizkien jardueren artean hautu bat egin dezaten.

Leku berean, gune desberdinak ezarri behar dira, hots, irakurketa gune bat liburutegiarekin, tapizarekin... Marrazki/arte gune bat, orriak, kolorezko arkatzak edo feltro lumekin... Joko gune bat mahai joko desberdinekin, animatzaile baten ardurapean.

Antolaketa honi esker, denek eguna hobeki bizitzeko bidea ukanen dute. Horrek haurrak autonomia eta ardura hartzera eramanen ditu goizeko edo arratseko harrera uneetako jarduera hautatzeko.

## 1 - 3 eta 5 urte artekoen guneak

- Etzanaldi gela eta pausa xokoa lasai egoteko denborarako
- Aktibitate gela muble egokituekin
- Garbigela eta komun egokituak
- Biltzeko lekuak material egokiarekin
- Josteta gunea

## 2 - 6 eta 8 urte artekoen guneak

- Aktibitate gela bat kantinaren ondoan
- Garbigela eta komunak
- Material gela
- Futbol zelaia
- Ezker pareta
- Josteta gunea

### Ateraldiak

| Bezperan  | Goizean  | Ateraldiaren denboran   | Ondotik  |
|---|--|---|--|
| Osasun fitxak kontrolatu: fitxa guziak berriz egin, etorritako haur guzienak daudela segurtatzeko.<br>Kontuan hartu beharreko datuak (asma, alergiak, BHaP...).<br>Osasun zakua apailatzea:<br><br>Zakuen edukia kontrolatu eta, beharrez, osatu.<br>Sendagailuak zakuetan sartu. | Osasun zakua + osasun fitxak eraman<br><br>Haur guziek ateraldirako puska guziak dituztela kontrolatu. | Haurrak behin eta berriro zenbatu.<br>Eguraldi ona delarik, gogoratu eguzkitako krema ezartzea 2 oren guzietz.<br><br>Kasketa<br><br>Hurrei maiz ura edanarazi. | Osasun zakua bildu<br><br>Osasun fitxen sailkagailua bildu |

#### - Minibusez,

3 urte baino gehiagotik gida baimena duten 21 urtez goitiko animatzaileek baizik ez dezakete gidatu.

Minibusean dauden guziek segurtasun uhala estekatu behar dute (animatzaileak eta haurrak).



#### **- Autobusez,**

Gidaria profesionala da.

- haurrak zenbatzea autobusetik ateratzeko edo autobusean sartzeko aldi oro
- gidariarekin bidea adostea (aurreikusitako bidea/geldialdiak finkatzea beharrez...)
- beste animatzaileekin haurrek segurtasun uhala estekatu dutela eta jarririk egoten direla segurtatzea
- hurrei segurtasun arauak eta gomendioak oroitaraztea bidaia ongi iragan dadin
- animatzaile bat autobusaren ate bakoitzean izatea bidaiaren denboran

#### **- Oinez,**

Animatzaileek haurrak beti espaloietan, lasaiki eta elkar bultzatu gabe dabiltzala segurtatzen dute. Haatik, oinezkoendako biderik ez bada, taldea errepidearen eskuinaldean ibili behar da.

Zeharkatzeko, taldeak horretarako diren guneak erabili behar ditu, eta animatzaile bat izanen da oinezkoen pasabidearen alde bakoitzean, ibilgailuak geldiarazteko eta haurren zeharkatzea errazteko.

### **III. GIZA BALIABIDEAK**

#### **Zuzendariaren eginkizuna**

Zentroko zuzendariak eginkizun garrantzitsua du. Hura da zentroko ibilera onaren berme, bai materialari bai giza baliabideei dagokienez.

##### ***A. Eginkizun pedagogikoa***

- Antolatzaileen hezkuntza-proiektua aplikatzea,
- Pedagogia-proiektua apailatzea animatzaileekin,
- Asteroko bilanak eta azken bilan orokorra egitea,
- Langileak formatzea eta ebaluatzea,
- Segurtasun arauak errespetatuak direla zaintzea,
- Material arazoak konpontzea,

- Animatzaileak jarduerak plantan ezartzen laguntzea,
- Gurasoekin biltzea.

### ***b. Administratzaile-eginkizunak***

- Animatzaile taldea kontratatzen proposatzea,
- Aurrekontua apailatzea, proposatzea eta errespetatua dela zaintzea,
- Material pedagogikoa kudeatzea.

## **Animatzaile eginkizuna**

Animatzailea bere ardurapean utzitako hurrei une goxoak eta oporraldi ona iraganaraziko dizkiena da. Hor dauden hurrek ez dute baitezpada aisialdi zentrora etortzeko hautua egin. Animatzaileak du denbora hori atsegina bihurtu behar.

Horretarako, beharko d(it)u:

- segurtasun arauak errespetatu,
- gorputz eta gogoz hor izan,
- gogotsu izan,
- gogozabal izan,
- zentzuz jokatu,
- haurrak eta lankideak errespetatu,
- materiala eta bere ingurumena errespetatu.

### ***A. Animatzailea bere haur taldean:***

Haurren segurtasun fisikoa, mentala eta afektiboaren erreferentea da:

- duen jarreraren bidez,
- besteekiko, hurrekiko eta helduekiko errespetuaren bidez.
- pedagogia-proiektuaren apailatzean parte hartzen du,
- bizi arauak plantan ezartzen eta errespetatzen ditu,
- beste animatzaileak formatzen laguntzen du,
- beste taldeak kontuan hartzen ditu,
- taldearen ebaluazioan laguntzen du.

### ***B. Animatzailea lantaldean:***

Animatzaile taldea oso garrantzitsua da: zuzendariak, animatzaileek eta langile teknikoek osatzen dute.

Animatzailea(k):

- proposatzen dituen jardueretan parte hartzen du: apailatzea, animatzea, biltzea,

- haurren akidurari, materialari, denborari egokitu behar da,
- dituen mugez ohartu behar da.

